



Mikel Donea, zaintu Euskal eña

578'gn. zenbakia
XII'gn. urtea

ARGIA

ASTEROKOA

Bidayen itunduba
(Franqueo concertado)

DONOSTIA, 1932'ko Oñila 22

Garibai, 28 - Ufutzkiña 12505

Zenbakia 0,10. - Arpidea urteko 5,50

Kolombia'tik

ARGIA'ren zuzendari, idazle ta irakurle guzietan agur, agur t'erdí. Erdi lotsaz bada ere idatzi bear det oingoan zertxoren bait nere biotzaren zati bat dan ARGIA asteroko bikañean. Inoiz ere etzait gertatu neri, urte t'erdí edo bi urte auetan gertatzen zaidana. Len egunero euskeraz zerbait idatzi oi nuen; orain ordia ilabetiak eta iya urteak jua zaizkit nere izkuntza kutunaren alde ezertxo ere egin gabe.

Ain aldi luzian ixilik egoteak naiko kalte egin dit bada len euskera gutxi ta gaizki banekian, orain ez gutxi t'ez gaizki oro aztu baitzait nere eñuz.

Dana dala gaur zerbait idatzi bear det abefituk erbestaratzean aixkide on batzuei ala agindu nien eta asketsi aixkide zintzo ta euzkotar orok nere nagitasuna ta irakuri nere lefo kaxkafo.

KOLOMBIA-Lau urte t'erdí gutxi gora-bera daramazkit. Kolombia deitzen dioten latefi eder ontan. Eta atzeñian banago ere ez det izan oraindik inolako miñik ez gaitzik; Euzkadi abefi miña bakafik. Ez naiz bein ere eririk oyeratu, osasun bikaiña baita nire lagunik zintzoena. Eskefak Jainko maiteari!

Kolombia edo dalako ori nun ete zegok? galdetuko dute noski euskaldun askok, eta nik onela erantzungo diet: Ego-Amerikak dituan amar latefiarik bat da Kolombia. Frantzia, Alemania ta Italia bat eginda beste da bere luñalde, 1.283.000 aneurkin lau-konde (kilometro kuadratu) baititu, baño ain luñalde luze-zabalean 8.000.000 (zortzi miloi) biztanle baizik ez dira. Uririk andi eta aipatuenak auk dira; Bogota -uri nagusia-250.000 biztanle ditu; Barrankilla (130.000 b.) Medellin (120.000 b.), Kali (100.000 biztanle), Kartajena (90.000 b.), Manizales (85.000 b.), Pereira (65.000 b.), Palmira (60.000 b.), Buearamanga (60.000 b.) ta Armenia (55.000 b.).

Kristobal Kolon itxas-gizon ospetsuagandik datorkio izena; bada orok dakigunez Kolon'ek idoro bazuan ere, luñalde befi ura Florentziatar (italiar) Ameriko Vespuzio'ren izenaz ezagutzen degu; eta ori zala-ta idorotzalearen izena ez aztutzearen, Kolombia izena jafi zioten luñalde eder oneri.

Ondo irabazia zeukan Kolon ospetsuak eta ondo irabazia zeukaten bere lagun euskotafak ere beste luñalde batzuek beren izenak eramatea, baña etzan ofela gertatu eta ixilik egotea obe ni bezelako beñitxueri. Latefi ontako lu-

3-Euskaldunak.. ikasi!.. ikasi! 1876'ko lege beltza...



1839'ko Legea eman zanetik euskaldunak galduz zijozzen geroz-geyago beren eusko-izatearen ustea eta Madrid'ko Gobernuak beñiz, eñege-agindu ugarien bidez, gure lege zar maiteak geroz geyago gutxitzen jafaitu zuan.

Andaluzi'tar Sanchez Silva legegilea izan gure lege zarafak inork baño geyago zanpatu nai izan zituna ta jamaika txalo jo zioten Madrid-aldekoak lan ofegatik!

Gure Lege-zarafak, gure fveroak noiz-baño-noiz ankaz-gora hotako zeuden Ebroz-aruntzkoak.

Izan genitun, bai, euskotafak, Madrid'ko lege-batzañetan Euskaleñia'ren alde sayatu ziran bi gizon: Egaña ta Beñoeta Aldamar jaunak.

Gogo ta asmo onak ugari izan zituzten bi jaun ayek baño etzuten asmatu Lege-zafen egiatzko onañia zer zan. Ofegatik gure eskubidien onañi dan abenda berezia etzuten aldeztu.



Bitartian España osua matxinada bizian zebilen; Eliza katolikua erasoz-eraso; prale ta moja-etxeak sutan; elizak loituak.

Politika -alderdiak nasturik zeukaten dana gutzia.

1872'ko jofaila'ren 14'an erabaki zun D. Karlos'en Ginebra'n gudan altxatzea. Ura zan bigaren karlista-geñatea. Euskaldunak bidia galduta, beren burua ta Euskal eñiya odol usturik utzi zuten.

Karlistak galdu egin zuten gefatea. D. Karlos'ek Prantzi'ra iges egin biar izan zuan.

Eusko-gudariak etxera joan ziran Jeneral Traidoreak zirala ta etztrala erncatzen. Eta...



D. Alfonso XII'ek gudari-legez egin zan Euskaleñiaren jabe ta 1876'ko epailaren 13'an, agiri au eman zien bere liberal gudarosteai: «... sortu dezute Españi'ko lege-batasuna ta orain zuen garaitzaren ondoren onak gerora etofiko diran gizaldiak ikusiko dituzte».

Andik lau ilabetera, 1876'ko uztaren 21'an, Euskaleñiya bi gefate-ondoren auldirik, bertako jendea beartsu, ta lantegi ta sal-eroskestak ezerezturik zedela...

... Gure eskubide bereziak ezin sufritu zituzten Ebroz-aruntzko eñien txalo ta poz-irintzi-artean, Madrid'ko legegileak 1876'ko uztailako 21'ngo. legea eman zuten.

(Jafaitzeko)

faldeguziak edo geyenak oso menditsuak dira eta ofegatik Euskaleñia ematen du alde batzuetan batez ere.

Bertako mendiak oso aundiak

dira, ta gure Aralar, Aizkoñi, Anboto, Gorbea, Udalaiz, Oiz, Ernio ta abar, gari metatxo batzuek baño ez dira, Kindio, Ruiz, Txिता, Puracé, Tolima eta beste as-

koren alboan jafi ezker. Ibayak ere berdin; gure Bidasoa, Oria, Deba, Ibaizabal eta abar, aurtxoak yolasean egin oi dituzten ubide edo lastxoak dirudite, Ca-

ASTE

Itzaldirik eder entzuten dira Donosti onetantxe, erderaz ez ezik, euskeraz ere.

«Salon Novedades» deritzan aretoan iru euzko mintzaldi eratu ditu, aurten ere, urtero bezela, Euskal-Esnale Bazkunak. Bi joan dira: Altzo Aita agurgari ta Lopez Mendizabal'dar Ixaka lege-gizon azkafarenak. Ondo alare!

Altzo Aita Euzko-Ikastetxe Nagusitaz aritu zan. Eta Ixaka jaunna, erlietzaz. Ura une atseñia! Bai!

Datofen igandean Artetxe sendagile ospatua degu etortzeko. Ori, ori: jakintsuak ireki dizagutela euskeraren bidea.

Ostegunez, Jesukristoren Korputz. Jai osua da. Guretzat, osua ez ezik, aundi-sonatueneak ere bai. Jai aldi eder bikaña egun onetan Eliz Amak dakarkiguna kristauak! Zindo ta zindo Jesukistogan bizi gaitean!

Jesukisto da gure Jaun ta Jabe! Euskaldunak, biotzak gora! Euzkotafak, Jesukistori begira beti, ifintz santzo, oyukari: Gora Jesukisto gure Eñege!

Götzai jaun Muxika'tar Matai agurgaria etofri da Prantzi aldetik Españi'ra. Urteufenean, ain zuzen ere.

Bañan, bere eñira, gurera, euskal eñira ez dator. Eragotzirik dauka Gazteiz'ko hafutian sartu dedin. España osoan ibili diteke; Gazteiz hafutian ez. Ora gure gaurko agintarien buruera.

Granada'ko Gon-gotzai malara jaso nai ote-luteken: bañan ori da gugandik ufutratzearen.

Madriken dago orain. Jaungoikuak lagun dakiola.

Euzko-Araudia

Auñera, euskaldunak, auñera beti, Eusko-Araudi-alde!

Gure lege-sail bat dator Estatuto edo Araudi onetan.

Gure lege sail bat. Sail edera! Ez aztu, euskalduna!

Estatuto bidez: ikastetxeak, gurreak; udaletxeak, gureak; auzietxeak, gureak; indaño, gurea; soldauzkarik ez.

Estatuto edo Euzko-Araudi ori, nai ta nai ez bear du Euskaleñiak.

Auek ez dira enganetzeko itzak, egia baizik. Auñera, euskaldunak!

Euzko-Araudiari «botua» eman il onen 29'an.

Estatutoarekin obelo eutsiko diogu erl jofari, esta'utirik gabe baño.